



ESKOLAN KONPOSTA PROIEKTUAREN BARRUAN MATERIA ORGANIKOA BILTZEKO KUBOAK HORNITZEKO HITZARMENA

- Eskolan Konposta proiektuarekin bat egin duten ikastetxe berrien artean banatu dira kuboak.
- Donostiako eta haren eragin-eremuko (San Markos Mankomunitatea) 27.000 ikaslek baino gehiagok parte hartzen dute ikasturte honetan ikastetxean bertan hondakin organikoak biltzeko eta konposta egiteko ekimen honetan.

Donostia / San Sebastián, 25 de febrero de 2025.- FCC Medio Ambiente erakundeak materia organikoa biltzeko 60 ontzi eman dizkio Cristina Enea Fundazioari, bi erakundeek sinatutako lankidetzeta-hitzarmenaren esparruan. Cristina Enea Fundazioak 11 urte daramatza Eskolan Konposta proiektua garatzen Donostiako eta inguruko ikastetxeetan. Proiektu horren bidez, ikasleak kontzientziatu eta sentsibilizatu nahi dira hondakinen gaikako bilketaren garrantziaz, zehazki materia organikoaz, ondoren konposta egin ahal izateko.

Ekologiako zinegotzi Iñigo Garcíak nabarmendu duenez, garrantzitsua da “herritarrak kontzientziatzea egunero sortzen ditugun hondakinak murriztu behar direla, besteak beste, zaborretara botatzen jarraitzen dugun materia organikoa. Kontzientziazio hori eskola-ingurunean hasteak, gazteenekin, balio espezifiko esanguratsua du. Iaz, edukiontzietan eta hiriko ekoizle handietan bildutako materia organikoa 9.5 tona izan zen, eta ingurumena hobetzen laguntzeko modu egokia da konpost moduan berrerabiltzeko programetan eta politiketan eragitea”.

Eskolan Konposta programa ikastetxeetan bertan garatzen da, ikastetxeko langileen prestakuntzari, Cristina Enea Fundazioak konpostagailuak instalatzeari eta ikasleentzako saio didaktikoak emateari esker. Proiektua hasi zenetik, hezkuntza-ziklo guztietako 20.000 ikaslek baino gehiagok parte hartu dute proiektuan, eta 800 saio didaktiko baino gehiago egin dira ikastetxeetan.

Orain arte, eta azken urteotan bi erakundeen artean sinatzen ari den hitzarmen honi esker, FCCk materia organikoa biltzeko emandako 980 kubo banatu dira, Eskolan Konposta ekimenak ezarritako helburuak lortzeko zati garrantzitsua.

Xabier Zabala FCC Ingurumen arduradunak adierazi duenez, “pozik gaude ekimen honetan parte hartzen jarraitzeaz. Beti pentsatu izan dugu gure hondakinen kudeaketari buruzko kontzientziarioa gaztetatik ikasi behar dela. Horrela, ikaskuntzatik kudeaketa horretan denok izan behar dugun ardurara igaroko gara. Frakzio organikoa izan da gure etxeetako hondakinen banaketan sartzen azkena, eta ahalegina egin behar da gure ohituren parte izan dadin. Udalari ematen diogun HHS zerbitzuaren leloak dioen bezala, **ARDURATU!!**”.

Iñigo García Ekologiako zinegotzi eta Cristina Enea Fundazioko lehendakariordea eta Xabier Zabala FCC Medio Ambiente erakundearen ordezkaria izan dira konbenioa berritzeko sinaduran.